



HORNITZAILEEN ESKULIBURUA

Konpainiak helburu informatiboekin soilik ematen du hurrengo euskarazko itzulpena, Konpainiaren webgunean eskuragarri dagoen jatorrizko dokumentu ofizialean oinarrituta. Euskarazko bertsioaren eta gaztelarazko dokumentuaren artean desadostasunik egonez gero, azken hori gailenduko da.

AURKIBIDEA

1.	XEDEA	3
2.	IRISMENA.....	3
3.	GARAPENA.....	3
4.	KOMUNIKAZIO- ETA HARREMAN-KANALAK.....	6
5.	ERREFERENTZIAK	6

1. XEDEA

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. (hemendik aurrera, “CAF”) bikaintasunarekin, konfiantzarekin eta jasangarritasunarekin konprometitutako enpresa da. Hornitzaileen eskuliburu honek egungo hornitzaileekin eta hornitzaile izan daitezkeenekin harremanetan jartzeko jarraibide orokorrak ezartzen ditu.

Erosketen Politika Korporatiboarekin bat etorritik, eta CAFen beste politika giltzarri batzuekin koherentziaz (hala nola jasangarritasunarena, Jokabide Kodearena, Giza Eskubideen Politikarena edo Arriskuak Kudeatzeko Politikarena), CAFen erosketa-estrategiak ISG irizpideak (ingurumenekoak, sozialak eta gobernanzakoak) kalitate-, kostu- eta epe-printzipio tradizionalekin integratzen ditu, eta kate etiko arduratsu bat bultzatzen du.

2. IRISMENA

Dokumentu horrek erreferentzia izan behar du CAFen egungo hornitzaileentzat eta hornitzaile izan daitezkeenentzat. Informazio argia eman behar du hornitzaileen hautaketa, kualifikazioa, ebaluazioa eta segimendua arautzen duten irizpideei buruz, eta bermatu behar du gure hornitzaile guztiek aintzat hartzen dituztela CAFen printzipioak eta konpromisoak, eta, hala, gure arteko harremana hobetzen dela.

3. GARAPENA

3.1. Erosleten Politika Korporatiba

CAFek hornitzaileekin epe luzeko harremanak ezartzera bideratzen du bere erosketa-estrategia, berrikuntza, osotasun eta jasangarritasuneko balio partekatuetan oinarrituta.

Hauek dira CAFen Erosketen Politika Korporatiboa arautzen duten oinarritzko printzipioak:

- **1. printzipioa. Harreman komertzial arduratsuak:** CAFek harremanak ezartzen ditu bere Hornitzaileen Jokabide Kodearekin konprometitutako hornitzaileekin, eta hornikuntza-kate etiko, garden eta giza eskubideekin, ustelkeriaren aurkako borrokarekin eta jasangarritasun-estandarrekin bat datorrela ziurtatzen du.
- **2. printzipioa. Hornitzaileen hautaketa objektiboa eta jasangarria:** Aurrez kalifikatzeko prozesu bidezko eta lehiakorren bidez, CAFek aukera-berdintasunean eta kalitatean, jasangarritasunean (ISG irizpideak) eta arriskuen kudeaketan oinarritutako hautaketa sustatzen ditu.
- **3. printzipioa. Esleipen zuzen eta gardena:** CAFek irizpide argi eta objektiboak aplikatzen ditu (prezioa, kalitatea, jasangarritasuna, araudia betetzea), funtzio bereiziak eta kanal irekiak ditu, eta erabaki osoak eta bere jarraibide korporatiboekin bat datozenak bermatzen ditu.
- **4. printzipioa. Hornitzaileen kudeaketa digitalizatzea:** CAFek plataforma digitalak integratzen ditu kudeaketa, trazabilitatea eta hornitzaileekiko lankidetzaren optimizatzeko, hornikuntza-kate osoko eraginkortasuna, betetzea eta gardentasuna indartuz.
- **5. printzipioa. Elkarrekiko garapena eta etengabeko hobekuntza:** CAFek epe luzeko harremanak sustatzen ditu hornitzaile estrategikoekin, eta horien garapena sustatzen du, trebakuntza, berrikuntza eta lankidetzaren bidez, iraunkortasunean eta jardunean helburu komunak lortzeko.

3.2. Hornitzailearen kualifikazioa

Hornitzaileak CAFen sartzeko prozesuak urrats orokor hauek ditu:

- **Hasierako erregistroa:** Hornitzaileek erregistro-formulario bat bete behar dute, prozesua hasteko beharrezkoa den gutxieneko informazioa emateko.
- **Oinarrizko prestakuntza:** Hornitzaileak emandako informazioa aztertzen da, hainbat alderdi kontuan hartuta: identitatea, finantza-datuak, kaudimena eta arrisku-maila. Gainera, fase honetan, hornitzaileek Hornitzaileen Jokabide Kodea eta Errosteke Baldintza Orokorak onartu behar dituzte.
- **Kualifikazio teknikoa:** Hornidura-motaren arabera, auditoria tekniko bat, ziurtagiriak, kalitate-ebaluazioak edo ekoizpen-prozesuen berrikusketa eska daiteke.

Behin baldintzak gaindituta, hornitzailea CAFen hornitzaileen sisteman sartzen da.

Prozesu hori zertxobait alda daiteke eremu geografikoaren edo negozio-unitatearen arabera, betiere homogeneotasun- eta gardentasun-printzipioei eutsiz.

3.3. Hornitzailearen ebaluazioa eta lana

CAFek hornitzaileen lanaren etengabeko segimendua egiten du, hauen bidez:

- Errendimenduaren funtsezko adierazleak, hala nola produktuaren/zerbitzuaren kalitatea, epeak betetzea eta zerbitzu-maila.
- Jarraipen auditoriak, beharrezkoa denean.
- Aldizkako ebaluazioak eta etengabeko hobekuntza-planak.

Gainera, CAFek etengabe aztertzen ditu bere hornitzaileen ISG arrisku-mailak, arrisku erregulatzaileak, finantzarioak eta operazionalak. Ebaluazio horrek aukera ematen digu:

- Hornikuntza-katean egon daitezkeen ahultasun-eremuak identifikatzea.
- Hornikuntza-fluxuetan disrupzio-arriskua minimizatzea.
- Barneko eta kanpoko konpromisoak ez betetzea prebenitzea, batez ere jasangarritasun-printzipioei, indarrean dagoen araudiari eta taldearen helburu estrategikoei dagokienez.

Ikuspegi proaktibo horrek aukera ematen dio CAFi gerta litezkeen gorabeherei aurrea hartzeko, haren erresilientzia operatiboa indartzeko eta hornitzaileen eta merkatuaren, bezeroen eta alderdi interesdunen itxaropenen arteko lerrokatzea bermatzeko.

Eremu horietako edozeinetan behar bezala ez jarduteak ekintza zuzentzaileak hartzea, aldi baterako etetea edo CAFeko hornitzaile-taldea behin betiko baztertzea ekar dezake.

3.4. Betetze-baldintzak

CAFek indarrean dagoen legeria zorrotz betetzeko eskatzen die hornitzaileei, bai eta Hornitzaileen Jokabide Kodean eta Erosketen Politika Korporatiboan jasotako printzipio etikoei atxikitzeko ere.

Gure hornitzaileekiko harremanetan, CAFek zorrotz kontrolatzen ditu kalitatea, betetze-maila eta bikaintasuna. Hornitzaile batekin egindako kontratuen normalizazioa harreman argietan oinarritu behar da beti, eta mendekotasun-moduak saihestu behar dira.

Hornitzaileak hautatzeko prozesuek lehiakortasuna eta kalitatea izan behar dute ezaugarri, eta erakundeko hornitzaile guztien arteko aukera-berdintasuna bermatu behar dute.

Besteak beste, baldintza hauek bete behar dira:

- **Legea eta zerga betetzea:** Hornitzaile guztiek zorrotz errespetatuko dute lan egiten duten lurraldeetan indarrean dagoen ordenamendu juridikoa.
- **Arlo hauetako konpromisoak betetzea:**
 - Ustelkeriaren eta eroskeriaren prebentzioa: CAFek osotasuna eta etika sustatzen ditu bere jardura guztietan. CAFen hornitzaile guztiek aplikatu beharreko legeak eta arauak bete behar dituzte, batez ere ustelkeriaren, eroskeriaren eta estortsioaren aurkako borrokari dagozkionak. Lehia leial, integro eta zintzoaren printzipioen arabera jokatu behar dute, bai CAFekiko harremanetan, bai beste edozein erakunde publiko edo pribaturekiko harremanetan. Hornitzaileek ezin dute legez kanpoko ordainketarik egin edo onartu inola ere. Halaber, CAFek ez du onartzen ohiko merkataritza- edo kortesia-jardueretatik harantzago doan oparirik. Hornitzaileak CAFi jakinarazi behar dizkio gaur egun dituen edo izan ditzakeen interes-gatazkak, eskura dituen kanal ofizialak erabiliz.
 - Giza Eskubideak errespetatzea: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta Nazio Batuen Mundu Itunean Giza Eskubideen arloan jasotako printzipioak errespetatzea.
 - Laneko segurtasuna eta osasuna: CAFen hornitzaile guztientzako lehentasuna izan behar du bertako langileen segurtasun eta osasunak. Hornitzaileek neurri egokiak hartu behar dituzte gaixotasun profesionalak eta lan-istripuak prebenitzeko, bai eta langileei lan-ingurune seguru eta osasungarria eskaintzeko ere.
 - Lan baldintzak: Hornitzaile guztiek lan arloan aplikagarri zaizkien lege eta erregulazioak errespetatu behar dituzte, gutxienez honakoak barne: gutxienezko soldata, tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza, haurren esplotazioaren eta esklabotza modernoaren aurkako babesa, aniztasunarekiko errespetua eta inklusioaren sustapena, lanaldiaren iraupena, atsedeen egunak, konpentsazioak, elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubidea.
 - Ingurumen-jasangarritasuna: CAFen hornitzaileek, Hornitzaileen Jokabide Kodearekin eta Erosketa Politikarekin bat etorriz, ingurumen-inpaktuak minimizatu eta kutsadura saihestu behar dute. Haiengandik espero da emisioak murriztea, jardueren deskarbonizazioa bultzatzea eta klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzea, berrikuntza sustatuz eta langileak ingurumen-kudeaketan eta baliabide naturalen kontserbazioan trebatuz.
 - Zehapenei eta esportazioen kontrolari buruzko nazioarteko araudiak betetzea: Hornitzaileek zigorren eta esportazioen kontrolaren arloan aplikatu beharreko nazioarteko erregulazioen arabera jardun beharko dute, eta, bereziki, Nazio Batuek, Europar Batasunak, OFACEk (Office of Foreign Assets Control) eta OFSIk (Office of Financial Sanctions Implementation) ezarritakoak.
 - Interes-gatazken prebentzioa: CAFekiko harremanetan interes-gatazka erreal edo potentzialen bat sor dezakeen edozein egoera saihestu behar dute hornitzaileek, eta behar bezala jakinarazi behar dute kanal ofizialen bidez.

- Jabetza intelektualaren eta industrialaren babesa: Hornitzaileak behartuta daude CAFen jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak errespetatzera eta babestera, bai eta bere jardueren esparruan harremana duten hirugarrenenak ere.
- **Printzipio horiek hornikuntza-katean txertatzea**, hornitzaileek jarrera proaktiboa har dezaten konpromisoen adierazpen publikoaren bidez, eta alor hauetan lan egiten dutela edo berariazko praktikak aplikatzen dituztela egiaztatzen duten ziurtagirien bidez:
 - Ingurumen-inpaktua murriztea.
 - Aniztasuna eta inklusioa sustatzea.
 - Bidezko lan-praktikak sustatzea.

Gai horiez gain, CAFek balorazio positiboa egiten du:

- CAFek filial bakoitzean dituen **plataforma digitalak erabiltzea**.
- Produktuak eta zerbitzuak garatzera eta **hobetzera bideratutako berrikuntzaren kudeaketa**.

4. KOMUNIKAZIO- ETA HARREMAN-KANALAK

Hornitzaileak CAFekin harremanetan jar daitezke ezarritako kanalen bidez, hauek barne:

- Harremanetarako formularioa, webgune korporatiboaren bidez www.cafmobility.com.
- Erosketen eta hornitzaileen arloak.
- Iraunkortasuneko Postontzia: esg@caf.ne ISG gaietarako.
- CAFen Barneko Informazio Sistema (Salaketa-Kanalak): <https://caf.integrityline.com>. Irregularitasunen berri emateko dago eskuragarri, eta taldeko langileek ez ezik, hirugarrenek ere erabil dezakete, hornitzaileek barne.

Komunikabide horiek komunikazio arina, segurua eta gardena bermatzen dute CAFekin.

5. ERREFERENTZIAK

Erosketen eta Hornitzaileen arloa webgune korporatiboan

Jasangarritasun Atala webgune korporatiboan

Data: 2025eko maiatza
Sinadura: Aitor Galarza
Ekonomia, Finantza eta Estrategia Zuzendaritza
(EFEZ)

HISTORIKOA	DATA
Hasierako edizioa	2025-05

Oharra: dokumentuan egindako aldaketak gorriz markatuko dira.

